

NIRE ERASMUS ESPERIENTZIA ODENSEN

Nire izena Nestor Santa Engracia da. Ingenieritza mekanikoko ikasle ohia Gasteizen eta Odensen ikasketetako azken lauhilabetea egindakoa. Hasteko esan beharra daukat esperientzia ezinhobea izan dela niretzako bost hilabete hauek bertan emateak. Ingeles dezente ikasten da, lagun asko egiten dituzu eta bizitzeko beste modu bat frogatuko duzue.

Danimarka orohar herrialde eroso da. Jende gehienak ingelera daki, aiton-amon batzuk barne. Honek komunikazioa eta arazo asko erraztuko dizkizue.

Unibertsitateari buruz ezin dut hain ondo hitz egin. Nik ingeniarietza mekanikoa ikasten nuen Gasteizen, baina bertan PDI (Product Development and Innovation) egitera behartu ninduten. Mechanical engineering bertan egon harren, erasmus ikasle guztiak batera ez izateko betekizun berezi bat sortu zuten. Horrek behartzen gintuen inoiz egindako ikasketak egitera.

Gasteiztik joan ginen ikasle guztiak bertan proiektua egin genuen. Proiektu honetan enpresa desberdinek oraindik merkaturatze gabeko produktu baten informazio dezente ematen ziguten. Produktu honi merkaturatze posizio lehiakor bat bilatzea zen gure zeregina.

Azterketa guztiak ahozkoak dira. Gutxi-gora-behera 15-25 minutu inguru luzatzen dira. Hasiera batean gehiegi iruditzen harren, ez da hainbesterako. Irakasle bi egon ohi dira irakasgai bakoitzeko eta laguntzen zaiatzen dira erlazionatutako galderak eginez.

Kurtsoa hasi baino lehen, ingeneritza eskolan erasmus ikasleei bizpahiru harrera egun atolatu zizkiguten. Gomendatzen dizuet egun hauetan bertan egotea eta honela unibertsitatea, klasekideak eta egin beharreko paper guztiak ezagutzeko.

Nola ailegatu:

Errezena litzateke Bilbo-Madril-Copenhague hegazkinez egitea. Copenhaguetik trenetaz Odenseraino eta bertan autobusa hartu bizikleta bat lortu harte.

Iberiak eskaintza bat dauka Erasmus ikasleentzako. Bidaia merkeago, bi maleta eta bueltako bidaia irekiarekin. Eskaintza honetaz gozatzeko "erasmus iberia joven" horrialdean sartu eta beharrezkoak diren paperak bidali.

Danimarkara ailegatzerakoan hainbat paper bete behar dira bertara ailegatu eta non biziko zaren berri emanez, haien hartean CPR zenbakia aurkitzen da. Behin CPR zenbakia lortzen duzuen gomendatzen dizuet WildCard tzartela ateratzea. Diru asko aurreztuko duzue Copenhaguera edo beste hiri batzuk bisitatu nahi baduzue.

Ostatua:

Hainbat ostatu daude Odense zehar. Nire kasuan Dalum Landbrugskolen egon nintzen, bertan aparteko etxe batean (Yellow House) bizi ginen 15 erasmus ikasle. Ordaindu beharrekoa 480€ ziren. Prezioaren barne janaria zegoen. Ez zen etxeko modukoa baina jangarria zen gehienetan.

Uste dut leku hau ez dela eskuragarri egongo erasmus ikasleentzat gehiago, baina eskaintzen badizuite pentsatu gabe hartu! Ingenieritza ikastetxetik 3 minutura.

Beste ostatu batzuk daude baina bakarrik egonda nago bitan:

HCO: daniarrekin erlazionatzeko hoberena da. Logela zabalak, bainu propioa eta sukalde partekatua beste 10 ikasleekin. Ingenieritza ikastetxearen ondoan.

Svendbordvej: logela handiak eta nahiko berriak, sukalde partekatua baina zentrutik hurrunegi, 40 minutu bizikletaz zentrutik.

Nondik atera:

Erasmus ikasleak normalean hurrengo bar-clubetatik ateratzen ginen, gehienbat asteko zein eguna zen kontuan hartuz:

A-bar: ostegunetan erasmus ikasleez beteta. Free hour (garagardoa) 11etatik 12tara. Hortik aurrera prezio onargarriak.

L.A. bar: asteazken eta ostegunetan free hour 11etatik 12etara. Erasmus baino gehiago Daniarrak.

Heidi's: ostegunetan free hour 11etatik 12etara. Erasmus ikasleez betea ere ostegunetan.

The GYM: larunbatetan free hour 12etatik 1etara. Erasmus ikasleak bertara joaten dira etxeetan festa ez dagoenean.

Daniera ikasi?

Aurretik aipatutako harrera egunetan, Daniera dohainik ikasteko aukera ematen dute. Nire kasuan apuntatu nintzen, astean behin da bakarrik eta hiru orduz klase ematen da. Ikastetxea Odense erdialdean dago, tren geltokitik 5 minutura. Niretzako, etxetik bizikletaz 25 minutura zegoen. Horregatik eta tokatu zigun irakaslea aspergarria zelako bostgarren astean alde batera utzi nuen. Ezagunak ditut beste irakasleekin zeudenak pozik joaten zirenak astero. Gustoko baduzu hizkuntza berriak ikastea ez gehiegi pentsatu eta izena eman!

Hau guztia esanda, Erasmusean ingelez hitz egiten den herrialde batetara joan nahi baduzue Odense aukeratu! Esperientzia ikaragarria izango da. Hori bai, zaia zaitezte Mechanical Engineering kurtsoan sartzen. Lortzen ez baduzue PDI ere ondo dago, baina gauza berriak ikastera irekita egon beharko zara.